


Alberto Atxabalen *Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibilaren fiskalitatea* liburuaren aipamena

(Tax Regulations in the Statutory Civil Law of the Basque Country, by Alberto Atxabal)

AIZEGA ZUBILLAGA, Joxe Mari

Finantza eta Tributu Zuzenbidean Doktorea
Mondragon Unibertsitatea
Larraña, 16
20560 Oñati
aizega@mcc.es

BIBLID [1137-1951 (2002), 9; 91-95]



A

Alberto Atxabal Deustuko Unibertsitateko irakasleak bere doktore tesian oinarrituriko *Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibilaren Fiskalitatea* liburua argitaratu zuen iaz, non, Foru Zuzenbidearen ikuspegitik, foru erakundeen eta fiskalitatearen arteko erlazioa azaldu baitzuen. Hain zuzen ere liburu horren edukia eta ikerketa euskaraz egin izanaren garrantzia aztertzen dira jarraian.

E

El profesor de la Universidad de Deusto Alberto Atxabal publicó el año pasado el libro *La Fiscalidad del Derecho Civil Foral del País Vasco*, basado en su tesis doctoral, donde explicaba la relación entre las instituciones forales y la fiscalidad desde la perspectiva del Derecho Foral. El siguiente trabajo tiene por objeto analizar la aportación de dicha publicación, así como destacar el hecho de haber realizado el estudio en euskera.

Z

Le professeur de l'Université de Deusto Alberto Atxabal a publié l'an dernier le livre *Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibilaren Fiskalitatea*, basé sur sa thèse doctorale, où il expliquait la relation entre les institutions forales et le système fiscal du point de vue du Droit Foral. Ce travail a pour but d'analyser l'apport de cette publication, ainsi que de souligner le fait d'avoir réalisé l'étude en euskera.

1. Sarrera. 2. Lanaren helburua. 3. Liburuaren egitura eta edukia. 4. Ondorioak. 5. Addenda: ikerketa euskaraz egitearen garrantzia.

1. Sarrera

Alberto Atxabal doktore jaunak bere liburuaren lehenengo esaldian laburtzen du liburuaren ardatz nagusia izango dena. Honela dio: "Legegile fiskalak ez ditu arautzen Foru Zuzenbide Zibileko berezitasunak beharko zukeen bezala". Autoreak hasierako aldarrikapen hau liburu mardul batean gauzatzen den azterketa sendo eta sakon batean oinarritzen du.

Alberto Atxabal Deustuko Unibertsitateko Zuzenbide Fakultateko Finantza eta Tributu Zuzenbideko eta Foru Zuzenbideko irakaslea da. Lerro hauetan aztertzen dugun liburuak bi arlo horiek jorratzen ditu. Bere izenburua adierazgarria da: "Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibilaren Fiskalitatea". Liburuak, Zuzenbideko bi arlo ezberdin lantzen ditu, Finantza eta Tributu Zuzenbidea batetik eta Foru Zuzenbidea bestetik. Hala ere, Foru Zuzenbidea da azterketaren izate arrazoia. Foru Zuzenbidea oinarritzat harturik, autoreak foru erakunde eta fiskalitatearen arteko erlazioa lantzen du.

2. Lanaren helburua

Liburuaren orrialdeetan zehar, legelari fiskalak foru erakundeak nola arautzen dituen aztertzen da. Helburu nagusia, araudi fiskalaren egokitasuna neurtzea da, alegia, legelari fiskalak foru erakundeak arautzen dituen erakunde zibilen izaera errespetatzen duen ala ez aztertu nahi da. Azterketa honetan protagonistak foru erakundeak izango dira, eta arau fiskalen funtzioa instrumentala. Foru erakundeak zerga ezberdinetan nola arautzen diren ikertzen da, arautzen baldin badira behintzat. Hori baita bestea: askotan legelari fiskalak ez ditu arautzen Foru Zuzenbide Zibilaren ikuspegitik beharrezkoak izango liratekeen egitateak.

Helburu hori lortzeko, Foru Zuzenbide Zibila (FZZ) ikuspegi fiskaletik aztertzen da. Hala ere, azterketa ez da foru erakunde batera mugatzen; zerga ezberdinak aztertzen dira, bertan foru erakundeek jasotzen duten arauketa balioesteko. Esan dugun bezala, lan honetan fiskalitatearen funtzioa instrumentala da. Foru erakundeak objektutat harturik, beraien arauketa fiskala lantzen da, kasu askotan fiskalitatea izango baita foru erakunde bat erabiltzea edo ez erabiltzea baldintzatuko duena. Eraentza fiskalak eragin handia du FZZren biziraupenarekin.

Gerta baitaiteke nahiz eta foru erakundeak araturik egon, errealitatean jendeak ez erabiltzea, ikuspegi ekonomiko batetik ez direlako errentagarriak; edo zuzenbide zibil komuneke beste erakunde batekin alderatuz fiskalki tratu okerragoa jasotzen duelako.

3. Liburuaren egitura eta edukia

Liburuak zortzi kapitulu ditu, bi zati nagusitan banatzen direnak. Lehenengo zatia, deskribatzailea eta orokorra, hiru kapituluek osatzen dute. Zati honetan gaiaren ikuspegi orokor bat eskaintzen da. Bertan FZZren oinarritzko ezaugarriak aztertu eta azpimarratzen dira. Bigarren zatia osatzen duten bost kapituluetan, azterketa zehatz baten bidez, zerga-sistema osatzen duten zerga garrantzitsuenak errepasatzen dira, bertan foru erakundeek jasotzen duten arauketa aztertuz.

Lehenengo kapituluan Euskal Herriko Foru Zuzenbideko Zibileko zenbait erakunderen izaera juridikoa aztertzen da. Helburua nagusia: errealitate zibila ezagutzea. Foru Zuzenbidea deskribatzen da, arau fiskal zehatzak errealitate juridiko horri aplikatzen baitzaizkio. Atal honen helburua, foru erakunde zibilak deskribatzea eta ezagutaraztea da. Autoreak honela adierazten du Foru Zuzenbidearen muina: "Euskal Herriko Foru Zuzenbidea herriaren zuzenbidea da, herriaren gogoan sustraiturik dagoena eta herriak bizitzeko eta sentitzeko duen modu bereziari egokitura dagoena" (34. orr). Euskal Autonomia Erkidegoan uztailaren 1eko 3/1992 Legeak, Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibilari buruzkoak, Foru Zuzenbidea sakonean aldarazten du, iraganetik datorkiguna jasoaz eta etorkizuneko Foru Zuzenbide Zibilaren garapen baterako oinarriak ipiniaz. Lehenengo atal honetan, autoreak hainbat foru erakunde zibil aztertzen ditu, horien artean:

- Bizkaiko tronkalitatea, oinarri-oinarritzko erakunde bezala definitzen dena, eta familiarren eta oñibarren artean ezartzen den lotura adierazten duena.
- Oinordetza Bizkaian, derrigorrezko oinordetzaren eta *ab intestato* oinordetzaren artean ezberdinduz.
- Erreserbak eta lehengoratzeak, oinordetzaren ohiko hurrenkera hausten dutenak.
- Testamentu boterea, Bizkaian duen erakunderik ohikoena eta legean arauketa berria jasotzen duena. Testamentu boterea erabiliz, testamentugileak jaraunspenaren komisarioa izendatzen du, testamentugilea bizirik zela hartu ezin izan ziren erabakiak komisarioak gauza ditzan. Testatzeko eskuordetza suposatzen du. Sakonki aztertzen ditu autoreak testamentu boterearen inguruabarrak.
- Oinordetza itunak, oinordetzaren gaineko kontratu bezala definitzen dira, eta



beraien bidez kausatzaile eta jaraunsleak oinordetza ituntzen dute.

- Foru Komunikazioa. Honen bidez, ezkontideek eskritura publikoan askatasun osoz ituntzen dute ezkontzaren ondasunen eraentza. Foru Zuzenbide Zibilaren erakunde esanguratsu hau zehaztasun handiz aztertzen du autoreak.

Bigarren kapituluan, lotura gune zibil eta fiskalak aztertzen ditu. Arau zibilek eta arau fiskalek ez dituzte egitate zehatz bat beren esparrupean erortzen den erabakitzeke irizpide berdinak erabiltzen. Gerta daiteke FZZri Estatu espainiarreko edozein arau fiskal aplikagarri gertatzea, lotura puntuak ezberdinak direlako. Lotura puntu zibila auzotartasun zibilaren arabera erabakitzen da. Auzotartasuna da espainiarren estatutu pertsonala zehazten duena, eta auzotartasuna nola esku-ratzen den Kode Zibilean arautzen da. Aldiz, arau fiskala egitate zehatz bati aplikatu behar zaion erabakitzeke, lotura puntu fiskalak hartu behar dira kontuan. Eta lotura puntu fiskala izango da, gainera, Estatu espainiarreko zein ordenamendu fiskal ezarri behar zaion erabakiko duena (ez da ahaztu behar Estatu espainiarrean bost eraentza fiskal ezberdin aurki daitezkeela, hots, Euskal Autonomia Erkidegoko hiru foru eraentzak, Nafarroako ordenamendua eta Estatuko araudia).

Hirugarren kapituluan, Foru Zuzenbide Zibil eta fiskalitatearen arteko erlazioa eta beraien artean sortzen diren arazo orokorrak aztertzen ditu, ikuspegi orokor batetik. Ene ustez, kapitulu hau da liburuaren muina jasotzen duena. Egungo egoera nolakoa den deskribatu, egoera hori sortarazi duten arrazoiak azaldu, eta sorturiko ondorioak aztertzen baitira. Guztia, egoerari irtenbideak aurkitzeko. Autorearen iritziz, legegile fiskalak ez du FZZ kontuan hartu. Erakunde zibilek ez dute arauketa espezifikorik jasotzen, eta arautzen denean ez da osotasunez egiten. FZZ ez da eza-gutzen eta ahaztu egiten da. Jatorria beste sistema zibil batean duten konponbideak aplikatzen ditu legegile fiskalak. Kode Zibila bakarrik hartzen du kontuan, eta foru izaerarekin bat ez datozen arauak onartzen ditu. Egokia izan ez den legedi fiskalak foru erakunde zibilen desagerpena, edo gutxienez ez erabiltzea, ekarri du. Autorearen ustez, egoera honi konponbidea aurkitzeko nahikoa da legegile fiskalak horretarako borondatea izatea. Legelari fiskalak arautu egin behar ditu foru erakunde zibilak. Kontzertu Ekonomikoa dela eta Lurralde Historikoen zerga-sistema arautzeko kompetentzia izanik, foru erakundeei ardura berezia exijitu behar zaie. Arauketa fiskal berezia behar da, FZZren printzipioak eta erakunde bakoitzaren izaera errespetatuz, Euskal Herriko FZZ barne hartuko duena.

Ondorengo bost kapituluetan, autoreak zerga ezberdinak erreparatzen ditu, bertan foru erakundeek jasotzen duten arauketa aztertzeke, jasotzen baldin badute behintzat.

Laugarren kapituluan Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zerga aztertzen da. Zerga hau da Foru Zuzenbide Zibiletik hurbilen dagoen zerga, erakunde zibil nagusiak oinordetzarekin erlasionatuak baitaude. Estatu osoko legedi fiskala aztertzen da, lotura puntu zibilak eta fiskalak ezberdinak izanik posible baita foru erakunde batek Estatuko edozein legedi fiskalen esparrupean erortzea. Zergaren oinarriko elementuak aztertzen dira, baita arau bereziak ere. Batik bat arau berezietan agertzen da foru erakunde zibilek duten eragina. Beste gaien artean, erreserba eta lehengoratzek, testamentu boterea, oinordetza ituna, alargunaren gozamina eta foru komunikazioa aztertzen dira.

Bosgarren kapituluan, aldiz, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga dugu aztergai. Zergaren baitan loturik geratzen diren errentak sortarazten dituzten elementuen titulartasunaren zehaztapena da analisiaren ardurarik handiena. Zerga honek foru erakundeekiko dituen zailtasunik handienak, zenbait ondasunen gaineko titulartasun zehaztugabeak dira. Batik bat arazoak foru komunikazioarekin eta testamentu boterearen erabilpenarekin sortzen dira.

Seigarren kapitulua Ondarearen gaineko Zergari dedikatzen zaio. Zerga honen araudiak ere ez du jasotzen euskal Foru Zuzenbide Zibilaren espezifikotasunik. Zerga honetan ere, PFEZn bezalaxe, arazoak sortzen dira zergak grabatzen dituen elementuen titulartasuna zehazterakoan.

Zazpigarren kapituluan Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga aztertzen da. Zerga honek ez du foru erakundeengan eragin handirik. Hala ere, zergaren arauketa kontuan izan beharrekoa da kostu bidezko ondare eskualdaketetan, adibidez foru komunikazioan eta foru sakan. Zergaren egitate zergagarria aztertzerakoan, autoreak adjudikazio gandikinak, ezkontza osteko erkidegoa eta foru zortasunak aztertzen ditu.

Azkenik, zortzigarren kapituluan udal zergak dira aztergai. Bi zerga dira garatzen direnak: Hiritar Izaera duten Lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zerga eta Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga.

4. Ondorioak

Atxabal doktoreak hamalau ondoriotan laburbiltzen ditu bere lanaren ideia nagusiak. Hona hemen, ene ustez, azpimarratzen direnak:

- Legelari fiskala ez da Foru Zuzenbide Zibilak jasan duen eraberritzeaz ohartu. Ezin dira, besterik gabe, Kode Zibileko sisteman oinarrituriko erantzun fiskalak aplikatu. Arau fiskalak ez du foru arau zibila aintzat hartzen. Arazoa ez da Foru Lurraldeetako arau fiskalena bakarrik. Arau

fiskala eta arau zibila aplikatzerakoan erabiltzen diren lotura gunean ezberdinak izanik, posible da FZZri Estatuko edozein legeria fiskal aplikatzea. Legelari fiskalari, foru erakunde zibila espresuki arautzea exijitu behar zaio. Arautu egin behar da, FZZren izaera eta printzipioak errespetatuz.

- Zerga guztien artean, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zerga da FZZtik hurbilen dagoena, bai zerga honek eta baita foru zuzenbide zibilak oinordetza baitute objektu nagusia. Foru erakunde zibilek eragin handia dute zergaren funtsezko elementuetan, eta zergaren arauak kontuan hartu beharko luke errealitate hori.
- Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergak ez du inoiz Foru Zuzenbide Zibilaren berezitasunik kontuan hartu. Zenbait ondasunen titulartasun zehaztugabeak sortzen ditu arazo nagusiak, foru erakundeak ez baititu zergaren arauak ezagutzen.
- Beste zergetan antzeko egoera aurki daiteke, hala nola, Ondarearen gaineko Zergan, Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergan eta udal zergetan.

Hau guztia kontuan izanik, autoreak dei bat egiten dio legelari fiskalari: arau ditzala foru erakundeak, eta arauketa FZZren printzipioak oinarritzat hartuz egin dadila. Beharrezkoa da araudi fiskalaren erreforma, egun indarrean dagoen araudia egokitzeko eta Foru Zuzenbide Zibilari buruzko 3/1992 Legeak arautu dituen erakunde berriak erregulatzeko.

5. Addenda: ikerketa euskaraz egitearen garrantzia

Lanaren edukiaz hitz egiteaz gain, aipamen labur bat egin nahi nuke ikerketa eta argitalpena euskaraz egitearen garrantziari buruz. Bizkaiko Foru Aldundiak argitaratu duen liburu honek euskal erakunde eta legelariarentzat garrantzi berezia duten bi arlo juridiko jorratzen ditu: Tributu Zuzenbidea eta Foru Zuzenbide Zibila. Jakina da Kontzertu Ekonomikoaren ondorioz Foru erakundeek beraien tributu sistema propioa onartzeko kompetentzia dutela. Ez da ahaztu behar, hala ere, Kontzertu Ekonomikoaren jatorri historikoa, bere jatorria euskal lurraldeek zituzten foruen desagerpenean baitago. Foru Zuzenbide Zibilak ere foruetan du jatorria. Forua herriaren zuzenbidea da, eta 3/1992 Legeak eguneratu egin ditu Bizkaiko eta Arabako zenbait lurraldetan iraganetik zetozen erakundeak. Bi arloetan, Tributu Zuzenbidean eta Foru Zuzenbide Zibilean, Foru Lurraldeek kompetentzia araugilea

“ Ikertzaile euskalduna bi hizkuntzetan lan egiteko gai denez, bi hizkuntzetan ikusiko du argia eginiko ikerketak. Euskaraz, irakasle eta ikerlari euskalduna izateagatik, eta erdaraz, lanaren emaitza komunitate juridiko zabalago batean ezagutzera emateko



dute. Egitate zibilak eta fiskalak arautzeko arau propioak onar ditzakete.

Atxabal doktoreak, bi arloak jarraituz, ikerketa sakona egin du. Euskal lurraldeen ordenamendu juridikoan oinarritzekoak diren bi arlo jorratu ditu, baina ez hori bakarrik; bere ikerketa euskaraz egin du gainera. Eta azken hau ere nabarmendu beharreko zerbait da.

Azken urteotan euskarak izan duen normalkuntza prozesuaren beste adierazpen bat bezala, euskara unibertsitateetara heldu da. Euskal unibertsitateek ahalegin handia egin dute irakaskuntza euskaraz eskain dadin. Zuzenbide Fakultateetara ere heldu da euskararen hedakuntza. Hori horrela izanik, Deustuko eta Euskal Herriko Unibertsitateko Zuzenbide Fakultateetan eskolak euskaraz eman ditzaketen irakasleak sortu dira. Urteak igaro ahala, Fakultateetatik euskaraz ikasi duten Zuzenbidean lizentziatuak irten dira, horrela euskal legelari komunitate bat sortuz. Zuzenbidearen irakaskuntza euskaraz eskaintzearekin batera, beharrezkoa da euskara ikerketan ere erabiltzea, euskaraz eginiko ikerketak sortuko baitu legelari euskaldun kolektibo horrek behar duen erreferentziatzko materiala. Atxabal doktorearenek bezalako ekimen eta ahaleginek egiten dute hori posible.



Atxabal doktoreak bere doktore-tesia euskaraz egitea erabaki du, horrela koherentzia osoz bere irakaskuntza eta ikerketa lana euskaraz garatuz. Nahiz eta teorikoki helburu ideala dirudien, errealitatean zailtasunak dira nagusi. Bibliografiarik ez dago euskaraz eta ikertzailea itzultzaile bihurtzera beharturik aurkitzen da. Meritu izugarria du ikerketa euskaraz egin eta euskaraz argitaratzeak; beste gauzen artean, lana bikoiztu egiten delako. Ikerketa lana euskaraz egin eta argitaratu ondoren, ez da lana hor amaitzen, ikerlari euskalduna elebiduna izanik eta bere ikerketa lanaren emaitza ahalik eta irakurle kopuru handienara iritsi dadin, bere lana erdaraz argitaratzera ere beharturik ikusiko baita. Ikertzaile euskalduna bi hizkuntzetan lan egiteko gai denez, bi hizkuntzetan ikusiko du argia eginiko ikerketak. Euskaraz, irakasle eta ikerlari euskalduna izateagatik, eta erdaraz, lanaren emaitza komunitate juridiko zabalago batean ezagutzera emateko.

Horixe gertatu da Atxabal doktoreak bere doktore-tesia argitaratu duenean. Argitalpena, ale berdinean, bi hizkuntzetan eskaintzen da. Alde batean euskaraz, bestean gazteleraz, irakurleak erabaki dezan zein hizkuntza den erabili nahi duena. Beharrezkoak dira, dudarik gabe, horrelako ekimenak, legelari euskaldunok osatzen dugun komunitatea indartu nahi baldin badugu behintzat.

